

# Alexandro Handiaren gaurkotasuna XX. mendeko zenbait eztabaida politikotan

Elena Torregarai  
Euskal Herriko Unibertsitatea

XX. mendeko gobernu bat baino gehiagok erabili du Alexandro Handiaren irudia egungo eztabaida politikoetan. Mitoaren sorburua eta zabalkundea kontuan izanda, Alexandroren ekintzen eta ezaugarrien artetik zein izan diren ikur gisa hautatuak aztertzen da. Lehia dago gobernu anitzen artean (Grezia, Tadjikistan, Fyrom...) irudi hau patrimonializatzeko, eta denek egiten dute bakoitzaren egoerarako egokien den ezaugarrien hautaketa.

Several governments used Alexander the Great's figure in political debates in the XXth century. Taking into account this myth's source and spreading, this paper analyzes which of Alexander's feats and features have been taken as symbols. There exists nowadays a competition among several governments (Greece, Tadjikistan, Fyrom...) to consider Alexander the Great's figure as part of their patrimony, and all of them select features that best fit their own political situation.

Alexandro Handiaren figuraren gaurkotasuna frogatzeko nahikoa izan daiteke gogora ekartzea, adibide gisa, 1990eko hamarkadan, Greziako gobernuak Mazedonia greziarraren hiriburuan, Tesalonikan, deitu zuen manifestazio handia, Mazedonia izena Jugoslavia ohiko errepublika batek beretzat hartu zuenean.

Manifestazio hori greziarrek FYROM (*Former Yugoslavian Republic of Macedonia*) deritzanarekin duten liskarraren agerkari zuzena izan zen. Izenarekiko polemika historikoa, gainera, areago joan zen errepublika berriak ikur nazionaltzat Filiporen eta Alexandroren Estatuaren ikurra izan zen antzinako eguzki mazedoniarra ere bereganatu zuenean<sup>1</sup>.

Eguzkia ikurtzat hartzeak ikuspegi historikoan kokatu zuen polemika. Greziarrek erantzutea erabaki zuten eta ikur mazedoniarren greziartasuna baieztatzeko Verginako, hau da, Antzinateko Aigaiko —Mazedoniako hiriburu sakratuko— 70. hamarkadan hasitako indusketa arkeologikoak argudio gisa erabili zituzten (Theodorou & Graziou, 1996: 31). Verginako aurkikuntzaren aitzakia aprobetxatuz, gainera, Alexandroren aurpegiarekin txanpon berri batzuk egin zituzten. Konkistatzaile handiaren irudiaren ondoan *Basileús Makedonon* ipinita, Mazedoniako izena haientzat bakarrik aldarrikatu zuten, txanponetan toponimoak ez erabiltzeko ordura arteko ohitura apurtuz<sup>2</sup>.

Mazedoniako greziartasun eskusiboa defendatzearen, Antzinako Mazedoniaren eta Alexandroren figura errebendika zezaten Greziako gobernuak bere herritarrei egindako deiak agerian uzten du gaur egungo identitate-konfliktoak konpontzeko Antzinatearen erabilera azpimarragarria; baina, baita ere, adierazten du gure ikuspuntutik interesgarriagoa den beste kontu bat: konkistatzaile mazedoniar handiaren mitoaren etengabeko transmisio historikoa (Centanni, 1995: 153-155). Izan ere, gobernuaren aldarrikapenari erantzun zioten hiritar greziarren gogoan Alexandroren figura egongo zen azken heroi greziar gisa.

Mito honen sorburuak eta zabalkundeak bi iturri dituzte: alde batetik, Plutarkoren Alexandroren biografiak estilo homerikoko heroi bihurtzen zuen mazedoniarra (Hamilton, 1973: 154-158). Egia esateko, Plutarkoren Alexandroren bizitza gaur arte iraun duen mito baten ardatza da (Moosman, 1992: 90-108; Centanni, 1995: 155): jaiotza liluragarria, izaera handia adierazten duen haurtzaroa, etsaiekin zaldun jokoerakoa eta adeitsua emakumeekin.

Beste alde batetik, Alexandroren figuraren zabalkundea, heroi herrikoi gisa, PseudoKalistenes-ek K.o. III. mendean egindako “Alexandroren Nobelari” esker gertatu da nagusiki (Guzmán, 1997: 239-244). Bertan Alexandroren legendazko biografia oso bat kontaktzen da: itsas-izakiekin eta brahmenekin izandako topaketak eta egindako bidaiak munduan zehar lurraren mugaldeenara, eta abar (González Rolán & Saquero, 1979-80: 70-73; García Gual, 1992). Batez ere, Akiles eta Herkules bezalako heroiekin erkatzen zen Alexandro, bera bilakatuz azken heroi greziarra (Hammond, 1981: 300-304). Testu honek publiko arrakasta handia izan zuen, batez ere Erdi Aroan, eta Alexandroren figuraren transmisioa erabat baldintzatu zuen (Cary, 1956; Gleixner, 1961; Aerts, 1988).

---

1. [www.cc.ece.ntua.gr/-conster/PageData/the\\_issue.htm](http://www.cc.ece.ntua.gr/-conster/PageData/the_issue.htm)

2. [www.cc.ece.ntua.gr/-conster/PageData/the\\_issue.htm](http://www.cc.ece.ntua.gr/-conster/PageData/the_issue.htm)

Antzinateko historialari greziar askok Alexandro abenturen goseak gidatutako pertsonaia bezala aurkeztu izanak eta tradizio herrikoia bideratzen zuen PseudoKalistenes-ek egindako nobelaren laguntzak (Baynham, 1955), legendaz eta liluragarrizko bizitzaren pertsonaia bihurtu zuten mazedoniarra. Nobelako bertsio erromanizatuen bidez, Erdi Arotik ia gure garaira arte iritsi den Alexandrori buruzko tradizio herrikoia ezaugarritu du (Frugoni; Guzmán, 1997: 243-252; Saquero & González, 1979-80).

Hala ere, Alexandroren tradizioa ez zen beti eta bakarrik herrikoia izan. Denbora luzez, bere heriotzaren ondoren eta Erromako garai osoan zehar, jeneralek eta agintariek, batzuetan bera imitatzeke beste batzuetan, ordea, bera gaitzes-teko, Alexandro *exemplum* aristokratikotzat hartu zuten (Michel, 1967).

Alexandroren bizitza laster bihurtu zen mito. Ziur aski bere heriotzako unetik bertatik. Diadokoen ika-mikek, haren gorpuzkinak arazo politiko bilakatu zituztelarik, halaxe izan zela aditzera ematen digute (Goukowsky; Rabanal, 1989). Heriotzako momentutik beretik, bere armalagunak haren historia zabaltzen hasi ziren, eta berehala mitoz beterik azaldu zen bere irudia (Errington, 1975; Kilerich). Aro helenistikoan zehar Alexandro handinahiak gidatutako gizaki gisa azaltzen da, *philotimia* ezagunak gidatutakoa, alegia.

Garai horretako Alexandroren kondaira balentriatsuetatik eta bere *philotimia* eta *póthos* direlakoan bidez, ideal kosmokratikoa sortzen da, mazedoniarren egitasmo eta konkistetan oinarriturik, eta aro helenistiko eta erromatarrean oihartzun handia izango duena (Worthington, 1999).

Erroman Alexandroren figura beti izan zen eztabaidagarria (André, 1990). Tradizio helenistikoaren herentzia bezala, goi-mailako buruzagi askok, Ponpeiok esate baterako, mazedoniarren oinordekotza bereganatu nahi izan zuen (Ceausescu, 1974; Welles, 1979). Beste batzuek, aldiz, gaitzetsi egiten zuten (Plácido, 1990; Marco Simón, 1990). Oro har, Alexandroren irudia zabaltzeko oso aro emankorra suertatu zen. Dena den, onartu beharra dago iturri latinoak greziarrak baino aurkakoagoak izan zirela Alexandrorekiko (Grilli, 1984). Horri buruzko polemika aro errepublikarrean bertan hasita zegoen, erromatarrek Alexandro egon zen lurralde berean kokatuta zeudenean eta, beraz, antzeko arazoak izaten hasi zirenean. Bere aurkariak nagusiki akats moralak leporatzen zizkieten. Hauentzat handinahiak buru-nahasketa eragin zion eta horrek edatera eta bere herrialdeko ohiturak uztera bultzatu zuen, era barbaroan jokatu. Era horretan Alexandroren jokamolde zibilizatzailea hartu beharrean, bere ahuldadearen morroi gisa aurkezten digute, bere loriaren beraren esklabo bukatzeraino, tirano eta despota bihurtuta (Green, 1978). Horiek horrela izanik, Alexandro, bere konkistak zeinahi izanik ere, ezin zen erkatu jeneral erromatarrekin. Hala ere, aitortu behar da Alexandroren ikuspegia zabaldu zutenak eta bere arerio nagusiak zirenak Senatuan zeudela; buruzagi militar gehienak, aldiz, konkistatzaile handiaren miresle eta imitatzaile sutuak izan ohi ziren (Heuss, 1954; Treves, 1953: 13-25; García Iglesias, 1990).

Senatuko ingurumarian mugitzen zirenentzat Alexandrok tiraniaren despotismoa ordezkatzeko zuen. Inperioko aroan intelektualen Alexandrorekiko jarrera negatiboa Senatuaren aldetik enperadoreekiko jarreragatik oso markatua zegoen. Seneka edo Lukano bezalako autoreek Alexandrori egindako erasoak Kaligulari, Neroni

edo Domizianori egindako erasoak estaltzeko erabiltzen ziren (Wirth, 1975). Alexandroren imitazioa, batez ere, Ekialdea konkistatzeko asmoa zuten enperadore erromatarrengan aurkitu ohi da, beren ekialdeko probintzien beharrentzako erantzun moduan (Breccia, 1933).

Izan ere, historiografia modernoaren zati batek uste du aro julio-klaudioan intelektual erromatarren Alexandrorekiko aurkakotasuna Inperioko mendebaldeko aldearen defentsa modu bat besterik ez dela, Ekialdearen boterearen aurrean eta bere potentzialaren mehatxuaren kontra. Marko Antonioren esperientziak, Alexandroren oinordetza onartu zuenak mehatxu hau irudikatu zuen (Michel, 1967: 109-137; Sordi, 1983). Azken argudio honek beste gai bat sartzen du gure auzian, hau da, Alexandroaren rola Ekialde eta Mendebaldearen arteko ikur edo zubitza. Egia esateko, gaur egungo Gobernu greziarraren aldarrikapena Mazedoniako errepublikaren aurka bi zutaberen gainean sostengatzen da: Alexandrok heroi herriko gisa duen irudian, batetik, eta bere izaeran, Ekialderen eta Mendebaldearen arteko zubi edo ikur gisa, bestetik.

Baina interpretazio helenikoa mendebaldezalea eta murrizgarria da. Gobernuak Alexandroren tradizioaren zati bat bakarrik hartzen du eta bere izaera asimilatzailea baztertzen du, konkistatzaile eta Ekialdearen menperatzaile bihurtuz soilik. Identitate nazionala baieztatu nahi da horrela. Konkistatzaile —*anikétos*— garaitu gabeko batengandiko oinordetza zuzena bilatzen da, pertsonaia garaiezin batengandikoa, alegia (Tarn, 1945: 338-346). Modu honetan Mazedoniako laidoaren aurka agertzeaz gain, Ekialdeko garaile baten heredentzia eskuratuta beren identitatea sendetsita gelditzen da, Antzinateko pertsiarren oinorde zuzentzat dauzkateen aurrean eta gaur egun harreman zailtan den estatu turkiarraren buruz buru (FYROM delakoa Mazedoniako errepublika gisa onartzen lehenak izan zirenak, paradoxikoki).

Alexandro konkistatzaile honen aldarrikapena mitoaren alderdi ezagunetarikoa bat da. Oso goiz Alexandroren gaineko gertaera historikoen gune historikoaren gainean hainbat osagai metatuz joan ziren Alexandro konkistatzailearen irudia aberasteko eta osatzeko. Irudi historiko hau Arriaren eta Siziliako Diodororen obretan oinarritzen da batez ere. Bi hauek, mazedoniarra konkistatzaile bihurtuko dute bere bizitzaren gertaera batzuk aukeratuz, beti bere gaitasun militarren agergarri. Arriaren edo Siziliako Diodororen Alexandrok, esate baterako, ederki eta ezin hobeto betetzen ditu buruzagi militarren, konkistatzailearen, hainbat arau, gai militarreko literatura osoan agertzen direnak, Herodotorengandik hasi eta Tuzididesenganaino, baina batez ere Jenofontek teorizatu zituenak, Ziropedian (Carlier, 1978).

Alexandroren ekintzen eta buruzagi onaren jarreraren arteko korrespondentzia, literatur obra askotan agertu da, batez ere gai militarrekoetan. Horrek ez du esan nahi asmatuak direnik, baizik eta Alexandroren ekintzen artean aukeratu egin zirela molde horrekin hobekien ezkontzen zirenak. Jarraian zerrendatuko dugu zeintzuk diren:

### 1. *Konkistatzailea eta jainkoak*

Sakrifizioak eta erritozko keinuak; Diodororen eta Arrianoren Alexandroren istorioak beteta daude holakoez. Adierazten dute konkistatzaileak jainkoen babesu zuela jainkotasunen borondatearen ikurrak baitira. Gainera eredu horren arabera, konkistatzaileak jakin behar du auspizioak eta presagioak irakurtzen, zorionekoak zein zoritzarrekoak (Maxwell, 1992: 34-55; Pacella, 1984; Langer, 1981).

### 2. *Bellum iustum. Guda zuzena*

Tuzididesengandik gerra zuzenak konkistatzailea hornitzen duen eredu literario komuna da. Adibidez, Dariori bere emazte eta alabak helaraztea konkistatzailearen bereiztasunaren espresioa da. Eta gerratea, behin eta berriro, Pertiako konkistan Alexandro greziarrak zuen mendeku eskubide gisa aurkeztu da (Ambaglio, 1993; Bloedoe, 1995).

### 3. *Beldurra*

Ikararen erabilerak osagai psikologiko gisa konkistatzailearen trebetasuna erakusten du arerioen aurrean eta bere soldaduak kontrolatzeko tresna ere bada (Holt, 1982; Bosworth, 1996).

### 4. *Arriskuak*

Alexandrok, dudarik gabe, adorea ideala eta arriskuaren mesprezua gorpuzten ditu. Adibidez, Mallietarako asaltoan, mazedoniarrek ez du arriskuaren aurrean etsitzen eta bere ausardia erakusten du. Alexandroren oheburuko liburua zen *Iliada*-n aurki daitekeen ausarkeriaren kultoaren arrasto bat da hori.

### 5. *Neurritasuna*

Alexandroren moderazioaren gorai-pamena beti dator emakumeekiko bere jarrerarekin bat, alde batetik, Roxanarekin, Oxiartesen alabarekin, zeinarekin ezkondu baitzen, eta bestetik, bere etsai Darioren emaztearekin eta alabekin, beren edertasuna handia izanik ere, askatu egin baitzituen (Briant, 1990: 54-55).

### 6. *Buruzagitza-gaitasuna eta erresistentzia*

Alexandroren xarmak enpresa anitz hastera bultzatzen du, nahiz eta zailak izan. Bere erresistentziaren adibide gisa, Gedrosiako basamortuaren travesia aipatzen da ur faltagatik denak atzeratzen zituena, erregea izan ezik. Alexandrok ezeren aurrean, ez goseagatik, ez egarriagatik, atzera egiten ez duen agintaria irudikatzen du (Conroy).

### 7. *Erregea eta egia*

Erregeak beti egia adierazi behar die bere menpekoei.

Alexandroren irudikapen honek, tradizio literarioan oinarri sendoa duen ikuspegi enkomiasitikoan du jatorria. Berezi komandante onaren idealean.

Ikusi dugunez, gaur egungo gobernu greziarrak aldarrikatzen duen Alexandro horrek Ekialdeari bizkarra ematen dio. Alexandrori Ekialdeko konkistatzaile izatea-

ren paper nagusia esleitzen dion ikuspegi murriz horri erantzun dio, nahigabe, Tadjikistango —Antzinateko Sogdianako satrapia pertsiarreko— presidenteak, Imomali Rashmonov-ek, 1997an egindako diskurtso batean, aldarrikatuz Alexandroren itzulia, Erdiko Asiara<sup>3</sup>.

Rashmonov-ek Alexandro aipatzea ez da kasualitatea edota bere diskurtsoa Antzinateko istorioekin janzteko anekdota apaingarria. Lehenengo eta behin, greziarren kasuan bezalaxe, besteen aurrean identitate nazionalaren baieztatze ahalegin bat da; kasu honetan Iparraldeko botere errusiarraren aurrean. Identitate hori Iranerantz zuzentzen da; izan ere, tadjikoak irandarrak dira etnikoki eta V. mendera arte Pertiako zati bat ziren. Identitate hori sendotzeko Alexandroren irudia gogora ekartzen da, Erdiko Asiaren berrantolatzaile gisa (Guzmán, 1997: 29-39). Edozein kasutan Alexandrorena ez da ausaz ekarritako irudia, presidenteak bere burua aurkezten baitu Alexandro berrizat, Historia bere aldera itxuraldatuz, eta beretzat aldarrikatuz, greziarrek lehenago egin duten bezala, Alexandroren ondorengotza.

Aldarrikapenak badu nolabaiteko oinarri historikoa, Baktria-Sogdiana izan baitzen Alexandrori buruhauste gehien eman zion satrapietako bat. Bakea azkenean lortu zen Alexandro eta Roxanaren ezkontzaren bidez, zeinak bi herrien arteko lotura sortu baitzuen. Gainera zaldieria baktrinoa eta sogdianoa armada mazedoniarrean sartu ziren eta Alexandrok berak zonaldeko gazteak erreklutatu eta soldadu iranioekin bakarrik eratutako falange mazedonioa osatu zuen, bere helburua Indiako konkista zelarik.

Rashmonov presidenteak, bere diskurtsoko beste zati batean, Antzinateko sogdianoaren ispiluan begiratzeko deitzen die bertoko herritarrei, espiritu nazionala piztearren, eta Tadjikistango identitate irandarra sendotzearen. Kontuan izan behar da konkista errusiarra baino lehenago Indiako zabalkunde-ndarrak pairatu zituela lurralde honek. Paradoxikoki Antzinatean, Alexandroren laguntzarekin konkistatu zuten lurralde bateko eraso hedatzaileetatik babestu behar izan zuten geroago.

Rashmonov presidenteak, dudarik gabe, Tadjikistango izaera irandarra sendotu nahi du mehatzatzen duten bi botereen aurrean: India eta Errusia. Horretarako Alexandroren aldeko irudia margotzen du eta hori harrigarria egiten da bere buruarantzako Pertiako tradiziokotzat duen herrialde batetik etorrira. Izan ere, Pertiako tradizioak Alexandro deabruak hartutako pertsonaia bezala zuen (Abel, 1966: 120; Hedayati). Tradizio horren haria dinastia sasanidaren propagandan aurkitzen da zeina Pertiako agintean egon baitzen Kristo ondorengo II. mendean. Lehenago boterean izan ziren partook, aldiz, ez zuten izan arazorik Alexandroren ondorengotza aldarrikatzeko. Sasanidak ordea, bere boterearen iturri zuzenetatik erauzten zuten Alexandroren irudia, bere konkista zuzengabetzat joaz.

Sasanidak bereganatutako ideia, azken finean, eliza zoroaristaren tradizioa jasotzearen isla besterik ez zen (Gnoli, 1995). Tradizio horrentzat Alexandrok kultura pertsiarra eta bere liburu sakratua, *Aresta*, suntsitu zituen eta Greziako kultura derrigorrez ezarri zuen deabru bat zen. Edozein modutan, K. o. II. mendeko Per-

---

3. S. Aioubov, "Tajikistan: President glorifies Alexander the Great". Helbide elektronikoa: [www.rferl.org/nca/features/1998/09/F.RU.980918121523.html](http://www.rferl.org/nca/features/1998/09/F.RU.980918121523.html)

tsian Alexandroren errefusatze honek eta Mendebaldeko enperadoreen *imitatio Alexandri* delakoak bat egin zuten denboran (Bosworth, 1980). Edonola ere, autobabeserako erreakzioa dela ematen du.

Baina, gaur egungo tadjikoek Alexandrori buruz duten irudia ez da jaiotzen Antzinatean, Islamean baizik: Islamak bi tradizioak jaso zituen arren, tradizio helenistikoa bultzatu zuen (Guzmán, 1997: 252-254). Gauzak horrela, Rashmonov-ek gogora ekartzen duen Alexandro hori, aipatu tradizio horretatik eratorritakoa da. Errege mazedoniarren izena Islam-era bihurtu zen X. mendeko estatu tadjikoaren fundatzailearen izenarekin azaldu zen. Lider tadjikoek, dudarik gabe, gogora ekartzen dutena, Alexandroren ondorengotzat beren legitimitatea defendatzeko beren lurraldean konkistatzaileak fundatutako hiri eta gotorleku asko daudeneko froga da.

Alexandroren gaineko tradizio islamikoa korapilatsua da eta hainbat adar ditu (Polignac, 1992), baina orohar bi nagusitzen dira:

1. Alde batetik, Alexandrori buruzko tradizio pertsiarren berregiketa izango genuke. Honen ondorioz Islamaren historian bi arazo zertu ziren. Lehengoak, konkistatutako lurraldeen legitimazioaren arazoa erakusten du. Bigarrenak, agerpen helenistikoa Iranen gaitzesten du, eta Mendebaltetik datorren guztiaren errefusatzea sinbolizatzen du.

2. Bestetik, Islamaren barne ere Alexandrori buruzko tradizio helenistikoaren berregiketa ikus genezake eta, bide honetatik, bere oinordetzaren onarpena. Azkeneko irudi positibo hori, Alexandro errege filosofo bihurtuta aurkezten duena da, jakintsuen babesle gisa. Pseudo Kalistenes-ek jadanik azaltzen zuen hau. Nobelan bezala, tradizio islamikoan ere, Alexandro konkistatzailea baino areago errege tolerantente eta argitsua da eta jakintasanaren bilaketak gidatzen ditu bere urratsak bere eraginari esker baketuz eta batuz doan mundu batean.

Alexandro mundu islamikoan, hiri fundatzailea ere bada (Rashmonov-ek behin eta berriro gogoratzen du hori); Jainkoaren tresna da hiriak fundatzeko. Mazedoniarra ez da, hortaz, jakintsu bat bakarrik, Jainkoaren pean dagoen gizakia ere bada, profeta baillitza.

Hiri fundatzaile gisa, basatiaren eta arrotzaren menperatzailea eta zibilizazioaren mugak barbaroen erasoetatik babesten dituen heroia da. Alexandrok, horrela, tradizio islamikoan, unibertso ordenamendua eta egonkortasuna irauarazteko monarka bermatzailea izatearen ezaugarriak biltzen ditu. Era honetan, Islamak, zuzenean, Antzinateko mazedoniarren oihartzuna ekartzen digu gogora. Eta azkeneko hau ere bada Rashmonov presidenteak aipatzen duen Alexandro, hau da, konkistatutako lurraldeetan hirietako fundatzailea eta administrazio baten lehenengo antolatzailea.

Antzinateko ikuspegitik planteatzen den arazoa da zenbaterainokoak izan ziren jokaera zibilizatzaile eta administratzaile horiek, aztarna arkeologikoak gordetzen diren hiri horietan, eta bere inguruan hiri horiek eraikitzen ikusten zituzten herritarren begietan zer errepresentatzen zuten hiri horiek. Beraz, azken finean, eztabaida historiografikoa da helenismoaren asimilazioari edo erresistentziari buruz planteatuta dagoena.

Alexandro hiri fundatzailea eta baketzailea, lurraldearen antolatzailea eta defendatzailea dugu mazedoniarraren ekialdeko irudietako bat. Besteak beste, irudi honek Alexandroren tradizioari buruz beste auzi bat jartzen du agerian; hots, errege mazedoniarra humanitatearen elkartasunaren bultzatzaile bezala erakustea (Tarn, 1948; Narain, 1957). Baina tesi hau E. Badian historialari famatuak errefusatu zuen (Badian, 1986; 1980). Auzia berez ondoko hau da: errege mazedoniarra herri batzaile konszientea bihurtu ote zen ala bakarrik *omonoia*-ren eta *koinonia*-ren ideien hedatzailea izan zen. Gaur egungo joera historiografikoen arabera Alexandrok ez zuen bultzatu inolako elkartasun politikarik. Kontuan izanik bere antolakuntza militarra, erregeak bakarrik arazo batzuen aurrean erreakzionatzen zuen. Adibidez, barneko satrapietako iranioen erabilpena Indiako kanpainaren beharregatik gertatuko zen, zonalde horietatik gizon matxinoak ateratzeko. Edozein kasutan, ez du ematen Alexandroren asmoa armada mistoa osatzea zenik. Ildo berean baieztatu daiteke ez zegoela bere proiektuen artean herri mazedoniarra eta pertsiarra elkarrekin, baizik eta agintean pertsiarren ordean, mazedoniarra jartzea. Beraz, Alexandroren aldetik, elkartasunaren eta adiskidetzaren politika baino gehiago boterea eskuratzeko *omonoia*-n oinarrituriko estrategia bat egon zela esan daiteke (Sordi, 1984).

## Bibliografia

- Abel, A. (1966): "La figure d'Alexandre en Iran", *Atti del Convegno La Persia e il mondo greco-romano*, Accad. Nazion. Lincei.
- Aerts, W. J. (1988): "Alexander the Great in "Exempla" and "Similitudines" in Byzantine Literature", *Exemplum et similitudo. Alexander the Great and other heroes as points of reference in medieval literature*, 1-8, Groningen.
- Ambaglio, D. (1993): "Alessandro Magno conquistatore", *Modelos ideales y prácticas de vida en la Antigüedad Clásica*, 37-49, Sevilla.
- André, J. M. (1990): "Alexandre le Grand, modèle et repoussoir du prince (d'Auguste à Néron)", *Neronia IV. Alejandro Magno, modelo de los emperadores romanos*, 11-24.
- Badian, E. (1986): "Alexander the Great and the unity of mankind", *Athenaeum*, 129-154; 425-444; Id., "Aspects of Alexander's imperial administration: some modern methods and views reviewed", *Athenaeum* 1980,
- Baynham, E. (1995): "Who put the "Romance" in the Alexander Romance?: The Alexander romances within Alexander historiography", *AHB* 9, 1, 1-13.
- Bloedoe, E. F. (1995): "Diplomatic negotiations between Darius and Alexander: Historical implications of the first phase at Marathus in Phoenicia in 333/332 B.C.", *The Ancient History Bulletin* 9, 3-4, 93-110.
- Bosworth, A. B. (1980): "Alexander and the iranians", *JHS*, 1-19.
- Bosworth, A. B. (1996): "The tumult and the shouting: two interpretations of the Cleitus episode", *The Ancient History Bulletin* 10, 1, 19-30.
- Breccia, E. (1933): "L'eredità di Alessandro Magno e l'impero romano", *Annali della Scuola Normale Superiore di Pisa*, 53-67.
- Briant, P. (1990): *Alejandro Magno, de Grecia al Oriente*, Madrid.
- Carlier, P. (1978): "L'idée de monarchie impériale dans la Ciropédie de Xénophon", *Ktema* 3, 134-136.
- Cary, G. (1956): *The Medieval Alexander*, Cambridge.
- Ceausescu, P. (1974): "La double image d'Alexandre le Grand à Rome", *Studia Clasice* XVI, 11-16.



- Centanni, M. (1995): "Il mito di Alessandro nell'Ellenismo letterario", *Alessandro Magno, storia e mito*, 153-155, Milano.
- Conroy, G.L. (): "Alexander the Great and his army".
- Errington, R.M. (1975): "Alexander in the Hellenistic world", *Entretiens de la Fondation Hardt* XXII, 173-179.
- Frugoni, L. (1979-80): "La fortuna di Alessandro nel Medioevo", 161-173.
- García Gual, C. (1992): "Un viajero mítico: Alejandro en el Medioevo", *Viajeros, peregrinos, mercaderes en el Occidente medieval*, XVIII *Semana de estudios medievales*-Estella '91, 53-68, Iruñea.
- García Iglesias, L. (1990): "Alejandro Magno y la política exterior de Augusto", *Neronia* IV. *Alejandro Magno, modelo de los emperadores romanos*, 132-142.
- Gleixner, H.J. (1961): *Das Alexanderbild der Byzantiner*, München.
- Gnoli, G. (1995): "La demonizzazione di Alessandro nell'Iran sasanide (III-VII secolo d.C.) e nella tradizione zoroastriana", *Alessandro Magno, storia e mito*, Milano 1995, 175-176.
- González Rolán, T. eta Saquero Suárez-Somonte, P. (1979-80): "Una nueva versión latina del texto griego sobre Alejandro y los brahmanes", *Cuadernos de Filología Clásica* XVI, 70-73.
- Goukowsky, P. (1989): *Essai sur les origines du mythe d'Alexandre (336-270 a.C.)*, 76-83.
- Green, P. (1978): "Caesar and Alexander: *aemulatio, imitatio, comparatio*", *AJAH* 1-26.
- Grilli, A. (1984): "Alessandro e Filippo nella filosofia ellenistica e nell'ideologia politica romana", *Alessandro Magno. Tra storia e mito*, 123-151, Milano.
- Guzmán, A. (1997): *Alejandro Magno. De la historia al mito*, Madril.
- Hamilton, J.R. (1973): *Alexander the Great*, Pittsburgh.
- Hammond, N.G.L. (1981): *Alexander the Great King, commander and statesman*, London.
- Hedayati, M. (): "Persia after the death of Alexander and its resistance to hellenistic World", *Hellenistic Persia*, 1-8.
- Heuss, A. (1954): "Alexander der Grosse und die politische Ideologie des Altertums", *AA*, 65-99.
- Holt, F. L. (1982): "The Hypasis "mutiny": A source study", *The Ancient World* 1-2, 33, 49.
- Langer, P. (1981): "Alexander the Great at Siwah", *The Ancient World* IV, 3-4, 109-127.
- Marco Simón, F. (1990): "Iconografía y propaganda ideológica. Júpiter Amón y Medusa en los foros imperiales", *Neronia* IV. *Alejandro Magno, modelo de los emperadores romanos*, 152-158.
- Maxwell O'Brien, J. (1992): *Alexander the Great: the invisible enemy*, New York.
- Michel, D. (1967): *Alexander als Vorbild für Pompeius, Caesar und Marcus Antonius*, Brüssel.
- Sordi, M. (1983): "Alessandro Magno e l'eredità di Siracusa", *Aevum*, 14-23.
- Moosman, J. (1992): "Plutarch, Pyrrhus and Alexander", *Plutarch and the historical tradition*, 90-108, Londres.
- Narain, K. (1957): *The Indo-Greeks*, Oxford.
- Pacella, D. (1984): "Roma e Cartagine nella leggenda di Alessandro", *Studi Classici e Orientali* 34, 110-111.
- Plácido, D. (1990): "Alejandro y los emperadores romanos en la historiografía griega", *Neronia* IV. *Alejandro Magno, modelo de los emperadores romanos*, 60-63.
- Polignac, Fr. de (1992): "L'image d'Alexandre dans la littérature arabe: l'Orient face à l'hellénisme?", *Arabica*, 296-306.
- Rabanal, M. *Alejandro Magno y sus sucesores*, Madril.
- Saquero Suárez-Somonte, P. eta González Román, T. (1979-80): "El castellano como puente entre Oriente y Occidente: la leyenda de Alejandro Magno", *Cuadernos de Filología Clásica* XVI, 11-64.
- Sordi, M. (1984): *Alessandro Magno, tra storia e mito*, Milano.

- Tarn, W.W. (1948a): *Alexander the Great*, Cambridge.
- \_\_\_\_\_, (1948b): *The Greeks in Bactria and India*, Cambridge.
- Theodorou, L., Gratziou, V. (1996): *Vergina. Treasures, myths and history of Macedonia*, Atenas.
- Treves, P. (1953): *Il mito di Alessandro e la Roma de Augusto*, Milano-Napoli
- Vandoeuvres, B. Kilerich, "The public image of Alexander the Great", 86-92.
- Welles, B. (1979): "There have been many Alexanders", *The impact of Alexander the Great*, 9-13, Pennsylvania.
- Wirth, G. (1975): "Alexander und Rom", *Alexandre le Grand. Entretiens de la Fondation Hardt XXII*, 181-221, Vandoeuvres-Génève
- Worthington, I. (1999) "How "Great" was Alexander?", *The Ancient History Bulletin* **13**, 2, 39-55.